

INAUTERIAK 2018 · LEIOA

XXV. LEIOAKO MOZORRO LEHIAKETAREN OINARRIAK

DATA: 2018ko otsailaren 13an, asteartea.

TOKIA: Kandelazubieta Kiroldegia.

3 MAILA EZARTZEN DIRA:

1. Banakakoa:

Partaideak 18 urte baino gutxiagokoak izan behar dira.

2. Taldekoa:

Partaideak 18 urte baino gutxiagokoak izan behar dira.

Talde bakoitzak gutxienez 5 kide izan behar ditu.

Mozorro guztiek harremana izan behako dute beraien artean.

3. Familia:

Maila honetan gutxienez familia bereko 3 kidek osatu beharko dute taldea.

Mozorroek harremana izan beharko dute euren artean.

IZEN EMATEA:

Parte hartu nahi dutenek egunean bertan, otsailak 13, apuntatu ahal izango dira Kandelazubieta Kiroldegian egongo den agertokian. Izen ematea egiteko momentuan zenbaki bat emango zaie partaideei. Zenbaki hau mozorroan ikusteko moduan eraman beharko dute.

DESFILEA:

Desfilean parte-hartu nahi dutenek, otsailaren 13an, arratsaldeko 18:00etan egon beharko dira Kandelazubieta Kiroldegiko agertokian.

SARIAK:

Hurrengo sariak ezartzen dira, partaide bat bi aldiz ezin izango dela saritua izan kontutan hartuz.

Banakoak

1. 100 €ko balea eta diploma

2. 70 €ko balea eta diploma

3. 50 €ko balea eta diploma

* Leioako Merkatari Elkartearen bazkide diren saltokietan erabili beharrekoak.

Taldeak

200 eurotan balioztatutako askaria (Leioako tabernetan erabili beharrekoa) eta diploma.

140 eurotan balioztatutako askaria (Leioako tabernetan erabili beharrekoa) eta diploma.

90 eurotan balioztatutako askaria (Leioako tabernetan erabili beharrekoa) eta diploma.

Familia

100 eurotan balioztatutako askaria (Leioako tabernetan erabili beharrekoa) eta diploma.

60 eurotan balioztatutako askaria (Leioako tabernetan erabili beharrekoa) eta diploma.

60 eurotan balioztatutako askaria (Leioako tabernetan erabili beharrekoa) eta diploma.

SARI BANAKETA:

Otsailaren 13an, arratsaldeko 19:30etan Kandelazubietan

Epai-mahaiaren erabakia behin betikoa izango da. Hau edozein zalantza edo oinarrien interpretazio burutzeko prest egongo da, beti ere bere irizpideak nagusi izango direlarik.

OHARRAK:

Lehiaketa honetan parte hartzeak berez lehiaketa honen oinarriak onartzea suposatuko du.